



Arartekoaren 2013ko azaroaren 11ko ebazpena. Horren bidez, Azkoitiko Udalari gomendatzen zaio ofizioz baliogabetu ditzala kexagileari igorritako likidazioak hilerriaren 01.a) tasaren ondorioz eta tasa hori ordenantzatik kendu dezala.

Aurrekariak

1. Kexagileak desadostasuna adierazi zuen Azkoitiko Udalak igorritako likidazio jakin batzuen ondorioz, zehazki, hilerriko tasaren honako tarifa hau: 01.a) *"Familia-unitate bakoitzeko eta urteko 16,24€"*.

Argudiatu du ez berak ez bere familiak ez dutela eskatu Azkoitiko hilerrian inolako hilobirik eta 2009. urteaz geroztik heriotza aseguru pribatua sinatuta dutela, hiltzekotan, euren gorpuzkiak euren jatorrizko herrialdera aberriratu eta bertan hobiratu ditzaten.

2. Arrazoi horiek direla-eta, kexagileak igorritako likidazioaren aurrean errekurtsu bat aurkeztu zuen. Hala eta guztiz ere, errekurtsu hori gaitzetsi zuten 2012ko uztailaren 24an, zerga-ordenantzek 2012. urterako jasotzen dituzten xedapenak oinarritzat hartuta.

Horren inguruan, errenta eta diru-bilketako teknikariaren ebazpenak zera aipatzen du: *"Asimismo, el anexo en el apartado 12, establece que la tasa por prestación de servicios y concesiones en el cementerio municipal por cada unidad familiar al año será de 16,24. Es por ello y al estar Ud. empadronado en el municipio de Azkoitia le corresponde abonar la tasa de cementerio, independientemente de cualquier seguro que pudiera tener Ud. contratado y del lugar en el que quiera se le entierre."*

3. Hain zuzen ere, zerbitzu publikoak eskaintzeagatiko eta ekintzak burutzeagatiko tasak arautzen dituen udal ordenantzaren 12. eranskinak udal hilerrian zerbitzuak eta emakidak eskaintzeagatiko tasa arautzen du eta horretarako hainbat tarifa zerrendatzen ditu. Zehatz-mehatz, honela identifikatu du 01.a) *"Familia-unitate bakoitzeko eta urteko 16,24€."*

Tarifa horren konfigurazioa ez dagoenez nahikoa zehaztua argibideak eskatu genizkion toki erakunde horri jakiteko zein den Azkoitiko Udalak kexagilearen familiari eskaintzen dion zerbitzu publiko edo emakida zehatza.

4. Bere erantzunean, Azkoitiko Udalak hauxe adierazi du:





“La Ordenanza Reguladora del Régimen y Funcionamiento del Cementerio Municipal de Azkoitia, establece en su artículo 2: “El Cementerio Municipal de la Villa de Azkoitia es un bien de dominio público, conforme al artículo 4 del Reglamento de Bienes de las Corporaciones Locales cuyo titular es el Ayuntamiento de Azkoitia, a quien corresponde su administración, cuidado y dirección, sin perjuicio de las competencias propias de otras Autoridades u Organismos”.

Asimismo el artículo 3 establece: “en el ejercicio de las funciones de administración, cuidado y dirección del cementerio, corresponde al Ayuntamiento: a) la organización, conservación y acondicionamiento del cementerio (...). d) la percepción de los derechos y tasas que se establezcan legalmente en la correspondiente ordenanza fiscal” Las tasas que se establecen en las Ordenanzas fiscales para el año 2012 en cuanto al apartado del cementerio son de 2 tipos:

*1.- General para todo aquel que está empadronado en Azkoitia
a) Por cada unidad familiar al año.... 16,24*

Con esta tasa se contribuye por todo aquel que está empadronado a la conservación, acondicionamiento del cementerio, como cualquier otro bien de dominio público municipal(...)

Por ello, si el reclamante no solicita el servicio de enterramiento o incineración no se le girará la tasa correspondiente al apartado 2, pero la tasa recogida en el apartado 1 se gira a todo aquel que figure empadronado en el padrón municipal de habitantes a fecha de devengo, por lo tanto sí le corresponde la tasa del apartado 1 al estar empadronado en Azkoitia...”

Gogoetak

1. Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Arauak 20. artikulua toki erakundeei ahalmena eskaintzen die tasak ezarri eta eskatzeko.

Zehazki, artikulua horrek zera aipatzen du bere lehen atalean: “Ordenantzak ezarri eta onartzeko erabakia hartu ondoren, Gipuzkoako udalerriek tasak finkatu eta exigitu ahal izango dituzte, foru arau honetan jasotakoari jarraiki, udalaren herri jabariaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagarengatik, bai eta subjektu pasiboari bereziki egokitu, eragin edo onura ekartzen dioten eta udalaren eskumenekoak diren zerbitzu publikoak emateagatik edo jarduera administratiboak egiteagatik ere.”



3. paragrafoan, 20. artikulua zera gaineratzen du: *“Aurreko 1 apartatuan jasotakoaren arabera, Gipuzkoako udalerriek tasak ezarri ahal izango dituzte udal eskumeneko zerbitzuak eman edo jarduera administratiboak egiten dituzten edozein kasutan eta, bereziki, kasu hauetan: (...) p) Udal hilerriak, gorpuk eramateko zerbitzuak eta bestelako udal hileta zerbitzuak.”*

Ondorioz, hitzez hitz emandako agindutik ondorioztatzen da tasa bat ordainarazi ahal izateko beharrezkoa dela udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobeixamendu berezia bideratzea edo zerbitzu publiko bat eskaintzea edo subjektu pasiboari zehazki eragiten edo on egiten dien udal eskumeneko administrazio jardura bat egitea. Zentzu horretan, ontzat jotzen dugu ezarritako tasaren eta eskaintako zerbitzuaren arteko lotura egotearen beharra defendatzen duen etengabeko jurisprudentzia azpimarratzea, eskaintako zerbitzua tasaren elementu legitimatzaile eta zerga egitatearen osagarri gisa konfiguratu dadin.

2. Zerbitzuaren eskaintzari dagokionez, udalean zerbitzua sortzearekin nahikoa ez dela onartzen duen Auzitegi Nagusiaren jurisprudentzia ugaria aipatu beharra dago, izan ere, horrez gain, zerbitzu hori finantziarioan lagundu behar duen subjektu pasibo zehatzari berariaz eragin edo on egin behar dio.

Horrela bada, adibidez, Auzitegi Nagusiak, 1997ko ekainaren 7ko epaian (12.362/1991 Gomendioa) zera azaltzen zuen:

“...Es obligado, a este respecto, recordar que el hecho imponible de la tasa viene constituido por la prestación de un servicio o la realización de una actividad que beneficia o afecta de modo particular al sujeto pasivo. Lo dice taxativamente el artículo 26.1, a) de la Ley General Tributaria de 1963 (RCL 1963, 2490 y NDL 15243), según el cual «las tasas son tributos cuyo hecho imponible consiste en la prestación de servicios o la realización de actividades en régimen de Derecho público que se refieran, afecten, o beneficien a los sujetos pasivos, cuando concurren las dos circunstancias siguientes: a) Que sean solicitud o recepción obligatoria para los administrados; b) Que no puedan prestarse o realizarse por el sector privado por cuanto impliquen intervención en la actuación de los particulares o cualquier otra manifestación del ejercicio de autoridad o porque, en relación a dichos servicios, esté establecida su reserva a favor del sector público conforme a la normativa vigente.

Por tanto, ni siquiera la mera existencia de un servicio municipal es suficiente para constituir a una persona en sujeto pasivo de la tasa establecida para su financiación, si el servicio no se presta de modo que aquélla pueda considerarse especialmente afectada por aquél, en forma de beneficio efectivo o provocación por el interesado de la actividad municipal, pues sólo con esas características puede ser un servicio municipal legitimador de la exigencia de la tasa.”



3. Tradizioz, tasa horren zerga egitatea udal hilerrien esparruaren barnean eskainitako zerbitzuek eraten dute: hobiratzea, gorpuak hobitik ateratzea, altxaerak eraikitzea, hilarriak, errausketak, lurzatiak zaintzeko ekintzak, dauden aretoak erabiltzea, etab. Halaber, zerbitzu horiei dagokionez, berdin dio hil den pertsona udalerrri horretan bizi ote zen ala ez. Beste batzuen artean, JUR\2002\162647 Gaztela-Mantxako Justizia Auzitegi Nagusiaren Epaia, administrazioarekiko auzien sala, 2002ko martxoaren 18koa eta JT\1997\35 Madrilgo Mantxako Justizia Auzitegi Nagusiaren Epaia, administrazioarekiko auzoen sala, 4. atala, 1997ko urtarrilaren 27koa.
4. Beraz, ondorioz, hileta-zerbitzuen tasaren subjektu pasibotzat jotzen dira zerbitzu horiek eskatzen dituzten pertsonak edo, halakorik ez balego, hildakoen oinordekoak edo legatudunak.

Hala, udalerrri guztietan derrigorrezkoa den zerbitzu publiko baten aurrean gaude, toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean (26.1.a artikulua) ezarritakoarekin bat eginez. Hori bai, horrek ez du esan nahi udalerrrian bizi den familia oro tasaren subjektu pasiboa denik. Gainera, horri dagokionez, kontuan hartu behar da tasa sortzen dela zerbitzua edo administrazio jarduera subjektu pasiboaren alde abian jartzen den unean.

Dagoeneko aditzera eman dugun moduan, tasetan subjektu pasiboak jaso duen zerbitzuaren edo jardueraren kontraprestazioa gailentzen da, "kontraprestaziorik gabe" eskatzen diren zergen aurrean.

Tasa subjektu pasiboak jasotako zerbitzu publiko edo administrazio jarduera zehatzarengatik (horrek subjektu pasiboari modu partikularrean onura ekarri edo eragin behar die) edo udaleko jabari publikoa modu pribatiboan erabiltzeagatik edo aprobetxamendu bereziaren truke ordaindu behar duen baliokidetasunaren kostua besterik ez da. Kexagilearen aldeko kontraprestazioa ez da tarifa horren eraketaren barruan ageri a) *"Familia-unitate bakoitzeko eta urteko 16,24€"*; izan ere, toki erakundeak adierazi duen moduan, kontserbazio eta egokitzapen lanekin laguntzeko ordaintzen da, udaleko jabari publikoko beste edozein ondasunen kasuan bezala.

5. Hileta-osasunaren arloko legeriak ez die lurperatzeko edo hilerrietako instalazioak erabiltzeko betebeharra ezarri udalerrian hiltzen diren pertsona guztiei. Gainera, gure gizartean gero eta ohikoago bilakatu da erraustea edo hildako pertsonen gorpuak euren jatorrizko herrialdeetara eramatea.





6. Udal hilerriak jabari publikoko ondasuntzat jotzeko aukera aintzat hartu behar da Toki Erakundeen Ondasunei buruzko araudiaren 2. eta 4. artikuluek xedatutakoarekin bat eginez. Modu berean eta neurri berean, udaletxea, azoka, udal egoitzak, museoak, ikastetxeak, igerilekuak, kiroldegia, etab. zerbitzu publikoko ondasunak dira eta, ondorioz, udal jabari publikoa osatzen dute.
7. Ondasun publikoen mantentze orokorra eta bere eskumeneko zerbitzuen prestazioa aurrekontuen kargura egiten da eta horien iturria, beste batzuen artean, eskubide publikoko diru-sarrerak, zerga itunduen eta itundu gabeko zergen parte-hartzea eta foru ogasunek biltzen dituzten gainerako diru-sarrera publikoak dira, baita udal zergak ere, hau da, "kontraprestaziorik gabe" eskatzen diren zergak.

Laburbilduz, tasa horren ordainarazpena ez dago toki administrazio horren zerbitzu edo jarduera baten prestazioari lotuta (eskubide publikoaren araubidean), ezta modu zuzenean interesduna denaren eskutik administrazio jarduera baten sorrarazteari edo balizko jarduera horrek eragin dezakeen onurari lotuta ere. Hortaz, tasaren ordainarazpena ez dator zuzenbidearekin bat, eskatutako tasa eta emandako zerbitzu publikoa zehatzaren artean ez baitago loturarik.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOAK

1. Hilerriko 01.a) tasaren harira, kexagileari igorritako likidazioak ofizioz baliogabetu ditzala, ez baita inolako zerbitzurik eskaini tasa horren kargura.
2. Zerga-ordenantzak aldatu ditzala eta udal hilerrian zerbitzuak eskaini eta emakidengatiko tasa arautzen duen 12. eranskinetik 01.a) "*Familia-unitate bakoitzeko eta urteko 16,24€*" tarifa deuseztatu dezala.